



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Zeanuriko Udala

Ezkontza zibilen ospakizun zerbitzua ematea, eta ezkontza zibilen zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen dituen ordenantza.

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 17an hasierako onarpena eman eutson ezkontza zibilen ospakizun zerbitzua ematea, eta ezkontza zibilen zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen dituen Ordenantzari Horretarako jarritako epean alegaziorik ez denez egon, onarpena behin betikoa bihurtzen da.

Araudi osoa publikatzen da.

Zeanurin, 2018ko urriaren 30ean.—Alkatea, Eusebio Larrazabal



EZKONTZA ZIBILEN OSPAKIZUN ZERBITZUA EMATEA , ETA EZKONTZA ZIBILEN
ZERBITZUA EMATEARI DAGOKION TASA ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA

1. atala.— Izaera eta arrazoia

Kode Zibilaren 49 eta 51 ataletan jarritakoaren arabera eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak jasotzen dituen 7/85 Legearen 15. ataletik 27. atalera eta Toki Ogasunerari buruzko abenduaren 16eko 9/2005 Forua Arauan ezarritakoa kontuan izanda Zeanuriko Udalak, udal eraikinean, Ezkontza Zibilen Ospakizun Zerbitzua ematea eta Ezkontza Zibilen Zerbitzua emateari dagokion tasa arautzen dituen Ordenantza jartzen dau.

2. atala.— Ordenantzaren xedea

Ordenantza honek Zeanuriko udalaren udal eraikuntzetan Alkateak edo honek ahalmentzen dauen zinegotziak ezkontza zibilak egitea dau xede eta baita ere zerbitzu hori emateagatik sortuko den tasa ezartzea.

I. TITULUA

EZKONTZA ZIBILA OSPATZEA

3. atala.— Ezkontza egitea eskatzea

1. Ezkontza zibila ospatzearen eskariak Zeanuriko Alkateari zuzenduak izango dira eta Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokoarrean aurkeztuko dira, 39/2015 Legeak adierazten dauen edozein moduan. Eskariak, ospakizun eguna baino hilabete lehenago aurkeztu beharko dira gixtienez.

2. Aurkezten diren eskariak ezkontideak espedienteari hasiera eman deusien Erregistro Zibilak bialdutako datuen arabera tramitatuko dira.

4. atala.— Ezkontza baimentzea

Ospatuko diren ezkontza zibilak Alkateak edo honek eskuordetzen dauen Korporazioko kideak baimendu beharko dabez, kasu bakoitzerako dekretu baten bidez.

5. atala.— Ospakizunaren lekua eta data

Ezkontzaren ospakizunerako data Alkateak edo berak eskuordetzean dauen zinegotziak jarriko ditu.

6. atala.— Ezkontza ospatzeko ekintza Alkateak edo berak eskuordetzen dauen zinegotziak egingo dau

Ezkontzako aktaren ale bat Udalean geratuko da, udal artxibategian artxibatuko dena, etan beste bat dagokion Erregistro Zibilera bialduko da.

7. atala.— Betebeharrak

Ezkontideak eta ospakizunera joango diren guztiak horretara egokitutako aretoan kalteak eragin ahal dituen ekintzak ezin izango dira egin. Bertaratuak sortu ahal dabezen kalteetaz ezkontideak arduratu beharko dira, kalteak egin dabezenak ezin badira identifikatu.

8. atala.— Eskubideak

Ezkontza ospatuko den aretoa udaletxeko udalbatza aretoa izango da edo udalak horretarako gaitzen dauen aretoa bat. Ezkontideek gela atondu edo egokitu nahi izan ezkerro, euren kabuz egin beharko dabe, eta horrek sortzen dituen gastuetaz arduratu. Kasu bereziren baten, udalak egingo balitu funtzio horiek, ezkontideek ordaindu beharko dabez.

**II. TITULUA****EZKONTZA ZIBILA DALA ETA TASA****9. atala.— Zerga-egitatea**

Tasaren egitatea Zeanuriko udalaren udal eraikuntzetan Alkateak edo honek ahalmentzen dauen zinegotziak ezkontza zibilak egitea zerbitzu ematea da.

10. atala.— Subjetu pasiboa

Tasa honen subjeto pasiboak, zergadun legez, ezkontza ospatzea zerbitzua ematen jakiezanak dira, horretarako espediente hasi dela eta.

11. atala.— Sorrera

Interesatuak ezkontza zibila egiteko eskaria egiten dabenean sortzen da tasa eta ordaintzeko beteharra .

12. atala.— Exentzioak

Udaleko zerbitzu sozialak, halan adierazen dabenean edo interesatuak halan eskatuta arrazoi ekonomiko edo sozialengatik, ezkontza zibilak dohainik egingo dira.

13. atala.— Zerga kuota

Aplikaturako diren tarifak hurrengoak izango dira.

- a) Udalean ospatutako ezkontzak: 50 euro.
- b) Beste toki batzuetara joatea ospakizun ekintzak egitera: 50 euro.

14. atala.— Kuotetan bonifikazioa

Ezkontide bata edo bestea Zeanuriko udalean erroldatuta egongo balitz, subjeto pasiboak %100eko bonifikazio izango leuke goian adierazitako kuotan.

15. atala.— Jestioa

Tasaren likidazioa Alkateak onartuko dau, ezkontza baimentzen dauen dokumentu berean.

16. atala.— Dirua bueltatzea

Subjeto pasiboari leporatu ezin jakon arrazoiengatik zerbitzu publikoa ez balitz emango, ordaindutako tasa itzuli egingo liteke.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetearen hasiko da indarrean.

